

HELBURUA: ETORKIZUN SOSTENGARRIA

HELBURUAK

- Talde-lana sustatzea ikasgelak edo taldeak lorpen bateratu bat erdiesteko.
- Kontsumitzaileok ekoizpen-metodo jasangarren garapenean bete dezakegun zereginari buruz gogoeta egitea.
- Ikasleak motibatzea eta haien artean interesa piztea kontsumo jasangarriarekin eta ekonomia sozialarekin zerikusia duten ikasketa- eta lanbide-arloen aurrean.
- Proiektuen arabera lan-metodologietan aurrera egitea.

BEHARREZKO MATERIALAK

- "Ekonomia Zirkularra: jakin ezazu zer den Planetak eztanda egin aurretik", YouTubeen eskuragarri: <https://youtu.be/Lc4-2cVKxp0>
- Ikasgelarako zereginen koaderno pertsonalizatua hemen deskargatu daiteke: www.unicef.es/eus/educa/1001proiektu

LAGUNTZA-MATERIALA

- Eskubideetarako eta herritartasun globalerako hezkuntzako jardueren gida eta baliabideak, hezkuntzari, haurren eskubideei eta klima-aldaketari buruzkoak, hemen eskuragarri: unicef.es/eus/educa

Planetako baliabideak gehiegi ustiatzearen arriskuak ulertuko dituen pertsonen belaunaldi bat behar du gizadiak, eta ingurumena eta giza eskubideak gehiago errespetatuko dituzten bizimodu eta negozio-eredu jasangarriagoak sustatuko dituen. Orain nerabeak direnentzat, eredu alternatiboak bilatzea ez da bakarrik beste aukera bat gehiago: osatu egiten dute partaidetzarako, hezkuntzarako eta ingurumen osasungarriago bat izateko duten eskubidea. Oraingoak ez bezalako kontsumo- eta ekoizpen-aukerak ezagutzea lagungarria izan daiteke haientzat beren orientazio akademikoan eta profesionalean, lagungarria izateaz gainera bizitzan ahalik eta ahalmen handiena lor dezaten.

Jarduera prestatzea

Jarduera prestatzeko ondoko aukerako jarduerak proposatzen ditugu:

■ Beste kontsumo-eredu batzuk ezagutzea

"Ekonomia Zirkularra: ezagutu ezazu zer den Planetak eztanda egin aurretik" bideoa proiektatuko dugu ikasgelan. Bideo horrek funtsezko gai batzuk aurkeztu ditu, zerikusia dutenak klima-aldaketari buruz hitz egiten dugun moduarekin eta gertakari horren aurrean erreakzionatzen dugun moduarekin: irudi eta mezu partekatutakoak, gehiegizko informazioa, ekintzarako proposamen urriak, pasibotasuna... Gai horiek eta bideoan planteatutako beste batzuk labur-labur eztabaidatu ditzakegu.

Gezien lodierak faktore batek beste batean duen eragin-maila adierazten du (gezi lodiagoa = eragin handiagoa). "Barne-atribuzioa"-k arazoaren gainean dugun erantzukizuna zein neurritan onartzen dugun adierazten du. "Arazoaren gaineko kontrol-pertzepzioa"-k ekintza bati heltzeko zein neurritan sentitzen garen gai adierazten du, eta zein neurritan dakigun zer egin behar den eta nola egin behar den.

```

graph TD
    JOKABIDE-ALDAKETA --> ALDATZEKO ASMOA
    ALDATZEKO ASMOA --> JARRERA
    JARRERA --> ARAU ETIKOAK
    ARAU ETIKOAK --> ALDATZEKO ASMOA
    ARAU ETIKOAK --> JARRERA
    ARAU ETIKOAK --> BARNE-ATRIBUZIOA
    BARNE-ATRIBUZIOA --> ARAU ETIKOAK
    BARNE-ATRIBUZIOA --> ARAZOA EZAGUTZEA
    ARAZOA EZAGUTZEA --> BARNE-ATRIBUZIOA
    ARAZOA EZAGUTZEA --> GIZARTE-ARAUAK
    GIZARTE-ARAUAK --> ARAZOA EZAGUTZEA
    GIZARTE-ARAUAK --> ARAZOAREN GAINEKO KONTROL-PERTZEPZIOA
    ARAZOAREN GAINEKO KONTROL-PERTZEPZIOA --> GIZARTE-ARAUAK
    ARAZOAREN GAINEKO KONTROL-PERTZEPZIOA --> JARRERA
    JARRERA --> ARAZOAREN GAINEKO KONTROL-PERTZEPZIOA
    JARRERA --> ERRUA
    ERRUA --> JARRERA
    ERRUA --> ARAZOA EZAGUTZEA
    ARAZOA EZAGUTZEA --> ERRUA
    ARAZOA EZAGUTZEA --> ARAU ETIKOAK
    ARAZOA EZAGUTZEA --> BARNE-ATRIBUZIOA
    ARAZOA EZAGUTZEA --> GIZARTE-ARAUAK
    ARAZOA EZAGUTZEA --> ARAZOAREN GAINEKO KONTROL-PERTZEPZIOA
    ARAZOA EZAGUTZEA --> ALDATZEKO ASMOA
    ARAZOA EZAGUTZEA --> JOKABIDE-ALDAKETA
  
```

Gainera, Elif Bilgin-en eta Wijzen ahizpen adibideak aurkez ditzakegu: ingurumenaren narriadura eteteko moduak aurkitu dituzte haiek, bigarren hezkuntzako ikasleek bultzatuta ditzaketenak.

Elif Bilgin gaztea da eta txikitandik zientzia oso gogoko duena. Ingurumenari lotutako gaiek pizten dioten jakin-minak eta klima-aldaketak eragiten dion kezka eraman dute plastikoaren alternatiba batean pentsatzera. 2 urtez ikertzen eta probak egiten jardun ondoren, platano-azalezko bere aurreneko bioplastiko-lagin bat lortu zuen 16 urterekin.

"Nire helburua zen platan-azalak bio-plastikoaren ekoizpenean erabiltzeko metodo bat garatzea, petrolioz egindako plastiko tradizionala ordezkatzeko. Metodo bat diseinatzeko eta plastikoa sortzeko gai izan nintzen. Diseinatu dudan metodoa oso sinplea da eta etxean bertan burutu daiteke. Horrela, edonork erabili lezake plastiko hori. Gure planeta salba daiteke petrolioaren deribatuekin ekoiztutako plastikoen ondorioetatik." "Biomedikuntza ikasi nahi dut gizadiaren onurarako izango den teknologiarekin lan egin ahal izateko"





Melati eta Isabel Wijsenek

Melati eta Isabel Wijsenek eginkizuntzat dute bizi diren uhartetik –Bali (Indonesia)– bertako itsasoak inbaditzen dituzten plastikozko poltsak kentzea. “Ez utzi inoiz inork zuri esaten gazteegia zarela edo ez dituzula gauzak ulertzen,” dio Isabelek. “Ez gara zuri esaten ari erraza denik. Zuri esaten ari garena haxe da, merezi izango duela.”


10 eta 12 urte zituztenean, Melatik eta Isabelek beren ikaskideen babesa lortu zuten eskaerak egiteko, hondartzak garbitzeko eta baita greba bat egiteko ere, eta azkenean, Baliko gobernatzaila konbentzitzea lortu zuten 2018rako uhartea plastikozko poltsetatik libre deklaratzeko konpromisoa har zezan. Pegatina bat landu zuten tokiko dendek plastikozko poltsak ez zituztela banatzen jakinarazteko.

Gaur egun, hezkuntzako liburuxka bat lantzen ari dira ahizpak, Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendua, euren poltsak material biodegradagarriarekin egiteko moduari, hondakinen kudeaketa eraginkorrari eta kutsadurari buruzko informazioarekin. “Hezkuntzarik gabe ez dago aldaketarik,” dio Melatik.

Jarduera garatzea

Gure ingurunean garatu ahal izango dugu ingurumen-proiektu bat ideiatu, planifikatu eta burutuko dugu, partaidetzarako eta ingurumen osasungarri baterako ditugun eskubideak erabiltzeko aukera emango diguna. Helburu partekatuak aukeratuko ditugu guztion artean eta banakoaren xedeak eta erantzukizunak zehaztuko ditugu.

Gure zereginen koaderno



Ekonomia jasangarriari buruz gehiago jakiteko, ingurumenaren alde ekitera eramaten gaituzten mekanismoak ulertzeko eta gure inspirazio-iturri izango diren adibideak ezagutzeko, geure eginkizuna zein izango diren pentsatu eta abian jar dezakegu. Lehenengo hiru hilabetea izango dugu ikasleak lan-taldetan antolatuz, eta metodologia bat eta helburuak finkatzeko, ondoren, ahal izanez gero, gure proiektua azaroaren 20an, Haurren Nazioarteko Egunean aurkezteko, nahiz eta eskola-agendara ondoen egokitzen diren epeei jarraitu ahal izango zaien.

Taldearentzako edo ikasgelarako zereginen koaderno pertsonalizatua hemen deskargatu daiteke: www.unicef.es/eus/educa/1001proiektu

Ez ahaztu zure esperientzia partekatzen gure blogean www.unicef.es/eus/educa/blog edo sare sozialetan #1001proyectosXelPlaneta hashtag-ekin, hezkuntza-komunitate osoak ezagutu ditzan zuen proposamenak eta aldaketa global bat lortzeko inspirazio-iturritzat erabili ahal izan ditzan. **Denon artean lortu ahal izango dugu!**

#1001proyectosXelPlaneta